

Herrixka... auzoan



Laster 40 urte izango dira Parte Zaharreko gazteak Nafarroako Muzki izeneko herrixkara joaten garela. Ez da nolana hikoia donostiarrok bertan osatzen dugun kolonia. Zenbaitetan koadrila giro alaian dibertitzeko asmoz, bestetan udalekuetan, gazteak gazte-txoagoekin elkarbizitzan zenbait balore eta esperientzia gertuagotik bizi nahian. Aurtengoan martxan jarri gara

berriro, 100 gazte inguruko uholdeak Muzki eta inguruko herriak zipriztindu ditzan.

Zenbait herritar harrizta geratzen dira neska-mutil koxkor koadrila maldan gora ikustean. Harridura ere gazteena herrixka ñimiñoenera iritsita ere, lauzpabost herritarrentzat halako frontoi puska ikusterakoan. Baditu eta bete beharreko baldintzak kategoriko herri izateko. Egin ohi ditugun lau egunetako ibilaldietan ez dugu frontoirik gabeko herri bakar bat ere igarotzen edo eliza berritzekotan ez dagoenik. Akaso Muzki bera izango da salbuespena, frontoiaren bigarren koadrotik igarotzen baita

errepidea. Ezin ahaztu ere jaiak! Ospatu berri dute, donostiarrek eta bertakoek San Isidro, baserritarren eguna.

Eliza, frontoia eta jaiak. Halakoak ez dituenik ez du herri izena merezi. Gauza bera gure herrixkan... auzoan. Parte Zaharrak beti izan du herrixka kutxu hori. Azken aldian auzo izateari utziko diogula badiote ere, ez diogu herrixka giroari uko egingo. Ez eta izen hori merezi izateko baldintzei ere. Trinitate plazako frontoi eta kirol instalakuntzak herritarren erabilpenerako egoki daitezten aldarrikatuz gabiltza aspaldian. Eta zein bide aproposagoa aldarrikapenatarako garai bateko jai eta festak berreskuratuz ez bada?

Garai batean ospatzen ziren gurean Santa Rita jaiak. Gazteenok ez dugu ezagutzerik izan, baina errotutako ohi-

tura omen ziren andereño Mari Korok Portaletasen santu haren irudia jartzea, ahari talkaren moduko herri kirolak, haur jolasak portabionesean eta txistulariak Ansorena buru. Txarangak, algarra eta jaiak ez ziren falta.

Auzoko zenbait elkartek bat egin dute datorren larunbatean hartara itzultzeko. Edo hobeki esanda ohitura hura gaurkotuz, geure herrixka... auzo izaerari eutsiz baldintza egokiak aldarrikatzeko. Beti ere bi oinarri hauei eutsi nahian: auzotarrantzako Trinitate plazan kirol eta beste hainbat jarduera burutu ahal izateko baldintza egokiak baitetik, eta garai batean ospatzen zen moduan Santa Ritako jaien berreskuratzea bestetik. Ohiturari jarraitzea izaten baita herrixka... auzoaren izaera topatzeko bidea.